

# ZURE IBILGAILUA ERABILTZEN DUZUNERAKO GOMENDIOAK

Zure ibilgailuan bidaiatzen duzunean lasai eta seguru sentitzea zure esku dago. Kontuan hartu honako **gomendio hauek** zure eguneroko bizitzan edota bidai luze bat egitean arazorik ez izateko.

- 1** Lortu zure autoaren **Ingurumen Etiketa**, eta jarri aurreko kristaleko behealdean, eskuineko aldean, **ondo ikusten dela ziurtatuta.**

Oraindik ez baduzu, ez itxaron benetan derrigorrezkoa izan arte. Oso erraza da, joan zaitez Correoseko edozein bulego nagusitara zirkulazio-baimenarekin eta zure NANarekin, eta momentuan bertan emango dizute.



- 2** Berrikusi zure **ibilgailuaren dokumentazioa** eta ziurtatu behar duzun guztia duzula:

- ibilgailuaren fitxa tekniko
- zirkulazio-baimena
- aseguruaren ordainagiria
- ezbehar-parteen dokumentua

- 3** Ziurtatu **IAT indarrean duzula.**

Eskatu zure ibilgailua ikuskatzeko hitzordua, behar besteko aurrerapenarekin, eta saia zaitez oporren aurreko astean ez joaten.



## Eta **bidaiari bazoaz...**



Egin **autoari azterketa orokorra**: pneumatikoen egoera, argiak, olio-maila, etab.

Zure ibilgailuan anomaliarik antzeman ez baduzu ere, komeni da beste norbaitek azterketa bat egitea oporretan joan aurretik. Gorabehera txikiak arazo handi bihur daitezke zure lurraldetik kanpo gertatzen direnean.



Gogoratu **ordezko giltza** eramatea, estutasunen batetik libra zaitzake.



Gomendagarria da sare sozialetan **ez argitaratzea etxetik kanpo zaudela argi uzten duten arrastoak**, etxean izan ditzakezun.



**Ekipajea badaramazu, gorde zuhurki**, ahal den neurrian agerian utzi gabe.



**Kanpoan elementuren bat badaramazu (bizikleta, skiak, surf-ohola...)** ziurtatu araudia errespetatu duzula.

## Bidaia atzerrira izatekotan...

Ez ahaztu **karta berdea** eramatea. Hainbat herrialdetan erantzukizun zibileko nahitaezko aseguru duzula egiaztatzeko balio duen dokumentua da. Aseguru honek gure ibilgailuarekin hirugarrenei eragin diezaiekegun kalte fisikoak edo materialak estaltzen ditu. Zure aseguru-etxean eskura dezakezu, eta funtsezkoa da beste ibilgailu batekin istripua izanez gero.

